



ERRIBERAKO NEKAZAL AUZIARI AURRE EGITEKO ZENBAIT SAIO (Zarrakaztelu, 1926-1936)

Iosu Chueca Intxusta

Sarrera:

Ikertlari anitz bat dator Estatu espainoleko historia garaikidean nekazal auziak oso zama haundia duela erraterakoan¹. Eta baieztapen hau egia ba da, zer erranik ez, lurraren inguruan suertatutako giza gatazkei begiratzen ba diegu.

Estatu espainolean, arlo industrial eta zerbitzukoak produkzio eta biztanlegoaren mailan lehen lekuak hartu arte, nekazal aktibitatei loturik zeuden eskualde gehienek lurraren inguruan etengabeko gatazkak izan zituzten.

Klaseen arteko borrokek goi mailako graduak hartzen zituzten abagaduneetan, bigarren Errepublikan errate baterako, fenomeno hau erabat egiaztatzen zaigu. Euskal Herria ez zen salbuespen bat. Izan ere, zenbait euskal tokitan ere, nekazal arazoak izugarrizko larridurak eta zalapartak sortarazi bait zituen 1931 - 1936 bitarteko urteetan, Nafarroa dugularik adibiderik aipagarriena .

Nahiz eta esparru ideologiko ezberdinetako ideologo zein politikari batzuk hemengo nekazal arazoa, justezko berdintasun eta noblezia orokor baten izenean ukatu edo gutxitu, sarritan errealtatea bertze era batekoa zen. Leku batzuetan, herri laborariak zituen erreibindikapenak, eta haien artean, zalantzarik gabe, garrantzitsuena bilakatu zena, lurraren eskuratzea edo herri-lurren errekupeazioa eta ondoren egin behar zen banaketak, tokian

tokiko gatazka eta liskar anitz sortarazi zituen urte hauetako arazo larrienetako batean bihurtuz.

Esparru hau argitzeko asmoz burutu diren ikerketak, azken urteotan emendatzen ari dira. Hasiera batetan ikuspuntu juridiko batetik eginak ba ziren ere², azken garaietan historialariek ildo hau jorratu dute zenbait lan interesgarri eskeiniz³. Hala ere, oraindik, premia haundikoak ditugu tokian tokiko ikerlanak, lehendik buruturiko ikuspegi orokor hauek ñabardura guztiakin aberastu daitezzen eta baita behingoz bada ere, basoek arbolak izkuta ez ditzaten.

Asmo hau aitzinat eramateko, Nafarroako Erriberako herri batetan, Zarrakaztelun hain zuzen ere, lur arazoaren inguruan gertatu ziren gatazka eta lehiak hartu ditugu aztergai.

ZARRAKAZTELU ETA LA OLIBA. HERRI BAT MONASTEGI BATEN MENPE.

Zarrakazteluko bilakabide eta bizitza La Olibako monastegiari loturik dago oso. Zisterren monastegi hau 1150. ren inguruan sortu zen eta ordutik laister errege eta nobleen dohaintzak hasi zen eskuratzen. Izan ere, 1151. rako juxtu sortu berria zelarrik, Berenguer tar Erramunek eman bait zizkion Figarolgo lurrak. Urteak igaro ahala, bai erosketen bidez, bai erregeek luzatutako emaitzen bitartez, inguruko herri eta lur gehienetaz jabetu ziren fraide zistertarrak. Zarrakazteluri dagokionez, Antso Jakintsuak, herri osoa *bere lur, belar eta ur guztiakin*, aipatutako monastegiari, 1162. ean eman zion⁴.

Aro garaikidean sartzen garenean, XIX. gizaldian hain zuzen ere, La Olibako monastegiak Zarrakaztelu, Melida eta Murillo el Kuendeko herrietan jaurgu osoa du. Baina, mende honetako lehenengo hamarkadetako gorabehera politikoak medio, La Olibako erlijiosoen komunitateak joan eta itzuli egiten du. Horrela, 1808. ko irailetik 1814. ko azaroa bitartean monastegia hutsik gelditu zen. Espainiako erregearekin batera fraideak itzuliko dira monastegira, berriro 1820. ean, hirurte konstituzionalean, alde egiteko⁵.

Behin betiko kanporaketa Mendizabalek bultzaturiko Desamortizazioarekin gauzatu zen. Honen ondorioz, ia ia mende batez, 1927. arte, Zisterko fraideek monastegitik kanpo gelditu behar zuten⁶.

Egoera hau izan zen abagadune egokiena Zarrakaztelutarrak beren lurretaz jabe zitezen. Baina, bertze leku anitzetan gertatu zen legez, kasu honetan ere, herritarrei zegozkien lurrak, sortzen ari zen burgesia liberalaren esku gelditu ziren. Izan ere, Monastegiko lurrak, lehendabiziko urteetan alokatuak ba ziren ere, 1851 eta 1852. ko urteetan burututako enkanteetan Iruñeko liberal batzuen eskuetara pasatu ziren⁷.

XIX. mendearen bukaeran Nafarroan jaio zen «Banco Agrícola» delakoak hauei erosi zizkien La Olibako eremu gehienak. Bilakaera arras antzekoa izan zuten Udaleko «korrallitza» eta herri lurrek. 1842. ean, hain zuzen ere, korrallitza anitz (*La Granja, Figarol, La Plana, Cierzo, Prado, Arbejal, Becerrilla, Pradolobera,...*) esku pribatuetan erortzen dira⁸.

Herri lurrak zenbait jendearen esku gelditzen diren bitartean biztanlegoak egundoko gorakada ezagutzen du. Zarrakazteluko eskualdean joan den gizaldiaren bukaeraz geroztik, hamarkadaz hamarkada, biztanleen erroldek zenbaki hazkorrak adierazten dizkigute. Nafarroa osoak urte hauetan ezezko hazkundera duen bitartean, Erriberak eta Zarrakazteluk eredu kontrajarria adierazten digute.

Ikertzen ari garen herri honen biztanlegoaren hazkundera nabarmena da oso. 1900. eta 1930a bitartean Erriberako 23 herri hartuz, bakarrik Tuterak, 1779 bizilagun gehiagorekin, eta Buñuelek, 1190 rekin gainditzen dute Zarrakazteluk duen erabateko emendioa, hau da, 1009 biztanle gehiagokoa. Hazkunde tasei dagokienez, bakarrik hiru herrik, Ribaforada, Kadreita eta Buñuelek, %0,81, %0,78 eta % 0,74 rekin hurrenez hurren, aurea hartzen diote % 0,71 lortzen duen Zarrakazteluri⁹.

Hau zela eta, jendea gehituz joaten zen heinean, lurraren premia gero eta larriagoa bilakatzen zen. Arazo honi aurre egiteko, Bigarren Errepublikako urteak ailegatu baino lehen, zenbait saio bultzatuak izan ziren. Hauetako lehena «La Esperanza» nekazarien elkartearen bitartez gauzatu zen. Bertze herrietan gertatu zen bezala, Zarrakaztelun ere laborari batzuk, 1909.ean hain zuzen ere, beren ahaleginak bildu zituzten zenbait lur bereganatzeko asmotan¹⁰.

Ildo honetatik, bigarren ekinaldia, eta lur hedaduraren aldetik, askoz garrantzitsuagoa izango zena, hain zuzen ere 1927.ean gauzatu zena, «La Agrícola» banketxe nafarraren porrotaren ondorioa izan zen. Banku honek, 1896.ean sortu zenetik, lehen aseguru etxearen gisa, geroxeago Banketxe modura, arreta berezia eskeini zion laborantzari.

«La Agrícola»k nekazariei kredituak emateaz gain lur erosketa ugari burutu zituen gure mendearen lehenengo hamarkadan, hauen artean, La Olibako eremuak. Horrela XIX. mendean zehar, saio ezberdinetan 18 eta 18 urteetan desamortizatu izan ziren monastegiko lurren jabea bilakatu zen Iruñeko bankua. Operazio honen munta ulertzeko nahikoa da, 1914.ko urteari zegokion Bankuaren txostenean agertzen diren honako zenbaki hauek aipatzea: Zituen lurretan, 1155 «robada». Mahastietan, 799 robada eta honez gain «La Agrícola»k zituen artaldeak 140.081,78 pezetetan zenbakotzen ziren¹¹.

Dena den, 1925.ko ekainean «La Agrícola» Bankuak porrot egin zuen, bere ondasun anitz haren harburuen eskuetan geldituz.. Horiek, lehen jarritako kapitalak erreuperatu nahian, enkantetara atera zituzten mota guztietako ondasunak. La Olibako lurak egoera honetan zeudela, bai udala zarrakaztelutarrak, baita Zisterko fraideek ere negoziaketei ekin zieten behin betikotz beren eskualdeko eremuak beraientzat geldi zitezen.

Abagadune honen aurrean zarrakaztelutarren baitan egundoko eztabaida piztu zen. Batzuek fraideen parte hartzea onartzen zuten bitartean, bertze batzuen eritzia kontrakoa zen erabat. «*Monastegikoei zenbat eta lur gehiago eman, gero eta gutxiago geldituko zen herriko semeentzat*»¹².

Hala ere, erosketaren eginbeharrak prestatzeko herriko batzordeko zenbait ordezkari dimititu arren, azkenean zistertiarrek eta udaleko agintariak adostasun batetara ailegatu ziren. Bi zati eginez, biek batera, fraideek eta udal zarrakaztelutarrak, La Olibako lurak 1.600.000 pttan. eskuratu zituzten 1927.ko urtarrilaren 19.ean. Fraideek 640.000 pezetan truke 3000 robada bereganatu zituzten eta herriko nekazari anitzek, 300 inguruk, bertze hainbertze, 880.000 pezeta luzatuz. Udalak bere aldetik, 80.000 pta. jartzeaz gain, enprestito baten bitartez lortzen zuen nekazariak jarri beharreko dirutza¹³.

Udalaren lehenengo asmoa 500 biztanleei lurra ematea ba zen ere, gero errealitatean, multzo hau 300era murriztu zen. Nekazari gehienek 5 robada hartu zituzten, bi sail

ezberdinetan. Hauen ordez udalari urtesaria ordaindu behar zioten berak aurreratutako dirua itzultzeko.

Baina, banaketa honekin, ez zen lurraren gosea asetu, ezta guttiago ere. Hasteko jende ugari zatiketarik kanpo gelditu zen eta bertze aldetik, lurra eskuratu zutenen artean, batzuk laister lurrez desjabeturik edo zorren pean aurkitu ziren udalari ordaindu ezin ziotelako.

Hau zela medio ez da harriztekoa, 1931.ko Errepublika aldarrikatu zenean, Nafarroako hegoaldean eta Zarrakaztelun, zehatz mehatz, lurraren arazoa estatuko bertze lurralde gehienetan bezala sekulako itzaropenen eta gatazken arragoa izatea.

Nahiz eta, aginte politikoari begiraturaz, Apirilaren 14ko erregimen berriak, Zarrakaztelura aldaketa haundirik ez ekarri, zeren «*Republicanos Agrarios*» izenaren pean irabazle suertatu zen taldea, Alfonso XIII.ren garaian udalean zeuden sektore eskuindarrak kokatzen bait ziren¹⁴.

Inguruko herrietan, ezkertiarrek Apirilaren 12ko hauteskundeetan gehiengoa lortu ba zuten ere, Zarrakaztelun, zinegotzi bat bakarrik erdietsi zuten¹⁵. Dena den, indar-harreman ezezkor honek ez zuen lortu nekazarien erreibindikapenak geldiarazterik.

Erregimen berria jaio bezain laister lana eta lurrak lortzeko eskakizunak plazaratzen hasi ziren. Lan publikoei dagokienez erreibindikazio aldarrikatuena Aragoiko Sadabaraino egin behar zen errepidea izan zen¹⁶. Baina honez gain, herriko gehiengoa laboraria zenez, lurraren inguruko eskakizunek erabateko lehentasuna hartu zuten.

Izan ere, berehala herri lurren berreskurapena eskatu zuen zenbait laborarik. Errepublika iritsi orduko hauek jadanik klaseko erakundeak eta sindikatoen eragina ezagutzen zuten. Ordurako, UGTko Federacion Nacional de Trabajadores de la Tierra delakoak Zarrakaztelun bere taldea zuen, Candido Terés buru zelarik. Batzuetan udaleko batzarretan parte hartze zuzena burutzen saiatzen ba ziren ere, gehienbat, Alkate eta bere taldekideen oztopuak zirela medio, Maximiano García zinegotzi sozialistaren bitartez laborari xumeen eskariak udalaratzen zituzten.

Dena den gutxiengo sozialista honen ahaleginak alferrikakoak suertatu ziren lehenengo hilabeteetan, zeren eta udalean nagusigoa zuen talde Errepublikar Nekazariak ez zuen ezta urrats txiki bat ere eman nahi izan herri lurrak berreskuratzeko. Are eta okerrago, udalaren indarra eta presioak herri lurren edota korralitzen jabe duneengan jo ordez, La Olibako erosleengan bideratu ziren. Hauetako askok udalari urte batzuetako kuotak zor zizkieten. Bertze batzuk, ordaindu ezinik beren landak bertze batzuei pasatu zizkieten, lur gutxiarekin geldituz. Udalak, bere aldetik, batzuei eta bertzei, lurra kentzearekin mehatxatzen zien erranez: *Udalak kuotak ordaindu ez dutenen jabe dunen eremuak bereganatu egingo ditu. Desjabetutako landa hauek enkanteetara aterako dira*¹⁷.

Herri lurrak eta korralitzen jabeekiko udalaren jokabidea alderantzizkoa zen erabat. Komunalen banaketa lanak eragozteaz gain, Nafarroako Diputazioak 1931.ko abenduaren 24.ean Zarrakazteluk bere korralitza eta Herri lurren jabe goa berreskuratu zezen kaleratutako erabakiaren kontra azaldu zen, epaitegi kontentzioso administratibora joz¹⁸. Jokoa honek herriko sektoreen arteko egoera okertu eta larriagotu egin zuen. Zeren beheko klaseak herri lurraren arazoari irtenbide bat bilatzeko udalaren aldetik zegoen borondaterik

ezaz konturatu bait ziren. Abagadune honetan laborariek egin zutena, ereintzeari ekitea izan zen¹⁹. Nahiz eta bertze inguruko herrietan (Kaseda, Erriberri, Baltierra...) eratzen zituzten elkarte amankomunik ez osatu²⁰, Zarrakazteluko herri lurretan nekazariak sartu ziren 1931-1932. bitarteko neguan urteko ereintza burutzeraz.

Saio honek arazo eta liskar anitz ekarri zuen. Lur banaketa legez egina ez zegoenez, une hau heldu arte izandako lurren gozamenariak uzta beraiei zegokiela erraten zuten. Herriko laborariek, indarrez lurretan sartu zirenak, osteraz, erein zutenentzat, hots beraientzat izan behar zuela defenditzen zuten²¹. Udalak korralitzen errentariei arrazoia eman zien. Honela, *El Villarko* korralitzan laborari batzuk sartu zirenean, agiri publiko bat karrikaratu zuen jakineraziz: «*Aipatutako korralitzan, arrendatariak ez direnen artaldeek debekaturik dute bazkatzea*»²². Zenbait denbora beranduago, eremu berean legez kanpo ereintza egiteagatik, Robada bakoitzarengatik 7 pta. ordaindu behar zutela ,hauetatik bost isuna izanik eta bertze biak kalteen indemnizazio gisa,agintzen zuen Udal zarrakaztelutarra²³.

Liskar hauetan Nafarroako Diputazioak, neutraltasunari eutsi nahiean, nolabaiteko bikoiztasuna azaldu zuen. Hasiera batetan, 1931.ko abenduaren 24.ko bilkuraren arabera herri lurren berreskurapena eta zatiketa agindu ba zuen ere, geroxeago, Zarrakazteluko udal agintariek jarritako errekurtsioa zela eta, lurjabedunen alde jokatu zuen, lurren banaketa egin arte lur okupatzaileek ez zutela inolako eskubiderik eta gainera urteko uzta bertze aurreko urteetan erein zutenek jaso beharko zutela erranez²⁴.

Horrelako erabakiak hartzen ziren uneetan langabezia oso zenbaki larrietara ailegatzen zen Erribera osoan, baita Zarrakaztelun ere. Nafarroako UGTko *Trabajadores* astekariak bere 1932.ko urriaren 7.ko alean zioenez herri honetan langabetuen kopurua 300tan zenbatekotzen zen. Ale honetan bertan arazo honi erantzuteko eskatzen ziren Sadabako errepidearen proiektu eta lanek, udala eta diputazioaren arteko negoziaketetan galdurik omen zebiltzala ziruditen.

Azkenean Epaitegi Kontentziosoak bideratu egin zuen komunalen banaketaren arazoa, Zarrakaztelu eta Santakarako udalek tarteratu zuten Diputazioaren kontrako errekurtsioa bertan behera utzi zuenean, bere 1932.ko urriaren 11ko sententziarekin²⁵.

Honen arabera udal horiek «*gaur egun esku pribatuetan dauden herri lurren desjabetzea legezkoa eta eginbeharrezkoa da*» Honez gain bi herrietako agintariek «*gaurko arautegiaren arabera aprobetxamendu komunal hauen eskubidea duten hauzoko guztien artean herri lurrak banatu beharko dituzte*». Diputazioari ere agintzen zion bere aholkularitza eman ziezaiela herri horiei «*esplotakuntza saio kolektiboak ikertu eta bultzatzeko*»²⁶.

Dena den, lehen aipatu dugun bezala, Nafarroako bertze zenbait herritan, ahalegin hauek nolabaiteko arrakasta izan zuten arren, Zarrakaztelun ez zen horrelakorik gertatu. Herri lurraren banaketari dagokionez, nahiz eta arestian aipatutako sententzia agertu, oraindik ere itxaron behar zuten 1933.ko udaberria arte lehenengo lur zozketak ikusteko.

Hala eta guztiz ere ez ziren hauekin lurraren inguruko gatazkak amaitu, zeren eta jende asko udalak lur zatiketaren parte hartzeko eskatzen zituen arautetik kanpo gelditzen bait zen. Zarrakazteluko udal arautegiaren arabera bakarrik herriko semeek eman behar zitzairen. Baina Zarrakaztelun bertan sorturik izateaz gain , bertze baldintza batzuk bete behar zituzten

lurrak eskuratu nahiez gero . Hala nola, La Olibako kuotak ordaindurik ukaitea, udalarekin bertze inolako zorrarik ez edukitzea, eta abar...²⁷ Kanpoko jendea ia ia ezinezkoa suertatzen zitzaion zeren arauak eskatzen zuten 10 urtez bertan bizi izana. Ildo honetatik udal agintarien egiazko asmoetaz jabetzeko nahikoa da erratea lehen arautegian 40 (!) urtetakoa jarri zutela epea eta bakarrik herriko langileen protesten eraginez 10 urtetara murriztu zutela.

Ez da harriztekoa UGTren honako eritzi kritikoa hau: « *Eta horrela elikatzen duen jendea baino bi aldiz mantentzeko gauza den Zarrakazteluko lur aberats eta emankorraren gainean, bi motatako hiritar saila finkatu zen. Batzuek, 210 robada eremuak jasotzen zituztenak eta bertze batzuek paria gixajoak, bere izerdiz ureztatu izan zituzten lurrak uztera zigorturik izan zirenak* »²⁸.

Hala ere, Erriberako bertze herrietan, Kadreita, Villafranka, Milagron... errate baterako, 1936.ko gerratea iritsi bitartean goi mailako gatazkak jarraitu ba zuen ere²⁹, Zarrakaztelun honek nolabaiteko moteldura izan zuen. Herri honetan 1933.ko lur banaketa egin ondoren sortu zen kontraesana ez zen lur jabeen eta lurrik ez zeukatenen artean, baizik eta lur asko eta lur gutxi zutenen artekoa .

Ordutik aurrera marra honek herriaren bizitza eta sektore guztiak zatituko zituen. Zentzu honetan biziki adierazgarria da Zarrakazteluko nazionalisten baitan izandako hausturak eta tirabirak. Korrante honen orduko prentsak dioskunez, herri honetan 1933.z geroztik Euzko Alderdi Jeltzaleak talde bat eratu zuen³⁰. Indarra haundia hartu omen zuen zeren urte bereko Azaroan izandako hauteskundeetan ia ia ezkertiarrek lortutako botu emaitza eskuratu bait zituen (160 sozialistek. 140 nazionalistek). Centro Vasco delakoa izateaz gain, Solidaridad de Obreros Vascos elkarteak ere bere erakundea errotu zuen horko nekazarien artean.

Garrantzi haundikoa zen bata nahiz bertzearentzat Nafarroako hain hegoaldean dagoen herri batetan honelako elkarteak antolatzea. Eta hala zirudien zeren askotan Nafarroako buruzagiak, Manuel Irujo, Felipe Oñatebia , José Agerre, bertzeak bertze Zarrakazteluratu ziren beren mintzaldiak ematera. Gauza bera egiten zuten inguruko erakunde abertzaleek, Tafallakoak errate baterako, bere dantzari, antzerlari eta hitzlariekin joaten zirelarik *nazionalismoaren hazia ereintzeko asmoz* .

Bertzalde, herri honek gizarte mailan bizi zuen auziak aukera ematen zion alderdi jeltzaleari nekazal arazoari buruz aldarrikatzen zituen irtenbideak praktikan jartzeko³¹. Euskadiko isuri atlantiarraren ereduak, hau da, baserrian oinarritzen zen produkzio-unitateak Nafarroako lurralde haundi batzuetan balore gutxi zuen, azken hauen egoera anitza eta oso aldakorra zelako. Honen ondorioz nafar abertzaleek egundoko garrantzia eman zioten bere komunikabideetan nekazarien tokian tokiko problematikari, herri lurren arazoei batipat. Zarrakazteluri dagokionez *Amayur* eta *La Voz de Navarra* n zenbait artikulutan abertzaleen eritziak plazaratuak izan ziren herriko nazionalisten artean zeuden ikuspuntu ezberdinak isladatuz.

Izan ere, zenbait eskakizun eta arauetan, lur komunalen berreskurapenean, herriko lan publikoetan erabili behar zen lan eskua bertakoa izatean, denak bat zetozen ere, arras kontrajarriak ziren bertze joera batzuek korrante politiko bereko partaideen ezberdintasunak adierazten dizkigute. Hona hemen, adibidez, «solidario» baten eskutitz arrenkuratsua eta

zenbait egun beranduago «Centro Nacionalista»tik iritsi zen kontrako eritzia. Lehenak horrela zioen:

Solidariok, kapitalak erasotzen gaitu. Zapaltzen gaituen eran gure bizitza eramanezina bihurtzen da. Kapital honek, langilea defentsarik gabe, elkartzeko eskubiderik gabe, tartail, bizi dadila nahi du, kapitala eta bere nahikerien morroi. Ezberdintasun hontaz baliatu nahi dute gure izerdia eta gure eskubideak irensteko. Zeren eta haiek bezalaxe guk lurraren eskubidea dugu³².

Segidan kapitalisten aurkako eraso zuzena luzatzen zuen erranez: *Kapitalistok: Kendu zizkizuetenean mendi komunalean legez kanpo zenituzten itzelazko landak, zeinekin zuen aletegiak gariz betez zuen etxeak aberastu zenituzten, izugarritzko mendekua agindu zenuten. «Arrazoi» zenuten, zuek lanik eman ez duzelako, jatekorik ere ez zuen etxeren bat izan bait da. Amaitzeko bere elkartekidei honako deia luzatzen zien: Zutik denok, kapitalismoak ezarri nahi digun diktadura faszista honen kontra borrokatzeko, erne egon behar dugu. Nafar eta euskaldun garenez ditugun interesak defenditzen jakin behar dugu; gure erakundeak ez du etsiko erreforma sozial kristauaren helburuak buruturik ikusi arte. Erriberatarrok, zutik denok, egunetik egunera gehiago estutzen eta zapaltzen gaituen makila apurtzeko³³.*

Bertzea, Zarkazteluko Centro Nacionalistaren izen pean, zenbait egun beranduago azaldu zen *La Voz de Navarra* egunkari berean honako ideiak plazaratuz: *Jaun solidariok: lurraren auzia konpontzen biziki kezkatzen zarete baina ez duzue begiratzen langileak baino askoz okerrago pasatzen ari diren nekazari askori kalterik egiten ote diozuen. Goitik egiten den berdintasuneruntz joan beharra dugu eta hortarako langileari lan egiten erakutsi behar zaio eta ez ahal duen baino gehiago gastatzen eta kapitalistari, kapitalak irabazten irakatsi behar zaio, lana sortarazteko eta horrela inolako gorrotorik gabe bizi ahalko gera³⁴.*

Hala eta guztiz ere, lehen erran dugun bezala, gerra ailegatu arte jabeak jabe txikien arteko lehia mantendu ba zen ere, haustura hau sektore guztietara ailegatuz, agitz moteldu zen 1934 eta 1935.ko urteetan. 1933.ko azaroaren hauteskundeetan Espainiako eskuinean garaile atera zelarik nekazal erreformaren amets eta erreibindikazioek atzera jo behar izan zuten. 1936.ko Otsailean, gizarte osoan, baita nekazaritzan ere, aldaketa sakonak aldarrikatzen zituzten indar politikoek, berriro agintera heldu zirenean oso denbora gutxi gelditu zitzairen bere betiko suntsidurarako, Uztailaren 18.ean hain zuzen ere. Ondorengo urteetan Nafarroan gauzatu ziren aldaketa gizaekonomikoak zirela medio lurraren beharra gutxituz joan zen heinean nekazal auziak bertze bide ezberdin batzuk hartuko zituen. Paradoxaz paradoxa, Diputazio eskuindar batek Zarrakazteluko lurren banaketa agindu zuen.

OHARRAK

1. Ikus: Edward Malefakis. REFORMA AGRARIA Y REVOLUCION CAMPESINA EN LA ESPAÑA DEL SIGLO XX, Madrid, 1971; Jacques Maurice. LA REFORMA AGRARIA EN ESPAÑA EN EL SIGLO XX (1900-1936). Madrid, 1975; Manuel Tuñon de Lara. TRES CLAVES DE LA SEGUNDA REPUBLICA. Madrid, 1985.
2. Ikus: José J. Montoro Sagasti. LA PROPIEDAD COMUNAL Y LA PRIVADA EN LA VILLA DE FALCES. ESTUDIO JURIDICO-HISTORICO-SOCIAL. Iruñea, 1929; Felipe Arin Dorronsoro. PROBLEMAS AGRARIOS. ESTUDIO JURIDICO SOCIAL DE LAS CORRALIZAS SERVIDUMBRES MONTES Y COMUNIDADES DE NAVARRA. Segovia, 1930; Martín Razquin Lizarraga. REGIMEN JURIDICO ADMINISTRATIVO DE LAS BARDENAS REALES. Iruñea, 1990.
3. Ikus: Angel García-Sanz. NAVARRA CONFLICTIVIDAD SOCIAL A COMIENZOS DEL SIGLO XX; Emilio Majuel Gil. LA II REPUBLICA EN NAVARRA. CONFLICTIVIDAD AGRARIA EN LA RIBERA TUDELANA 1931-1933. Iruñea, 1986. Egile berak. LA LUCHA DE CLASES EN NAVARRA 1931-1936. Iruñea 1990; Altafaylla Kultur Taldea. NAVARRA 1936 DE LA ESPERANZA AL TERROR. Iruñea, 1986.
4. Ikus: Felipe Ximenez de Sandoval. LA COMUNIDAD ERRANTE; José Maria Jimeno Jurio. LA OLIVA. «Temas de Cultura Popular» bildumako 66. alea.
5. Ibidem.
6. Ibidem.
7. Ikus: Data ezberdinetako «Boletín Oficial de Pamplona» delakoaren zenbait ale. 1838.ko uztailearen 26koa; 1838.ko Abuztuaren 26koa; Era berean, Felipe Arin Dorronsororen aipatutako liburua.
8. Ibidem.
9. 1900, 1910, 1920 eta 1930 urtetako Biztanlegoaren erroldeen arabera.
10. Ikus: Juan Jesús Virto, Victor Manuel Arbeloa. LA CUESTION AGRARIA NAVARRA (II) «Príncipe de Viana» 173 zenbakidun aldizkarian.
11. Ikus: LA AGRICOLA. MEMORIA GENERAL DE LA SOCIEDAD 1914.
12. Ikus: Zarrakazteluko udal aktak.
13. Ibidem. Eta 1927.ko Ilbeltzaren 19ean sinaturiko salmentako eskritura. La Olibako monastegiko Artxibategia.
14. Ikus: Zarrakazteluko udal aktak
15. Ikus: Ibidem. 1931.ko ekainaren 11koa. Eta Juan Jesús Virto. LAS ELECCIONES MUNICIPALES DE 1931 EN NAVARRA. Iruñea, 1987.
16. Ikus: Zarrakazteluko udal aktak. 1931.ko azaroaren 31koa.
17. Ikus: Zarrakazteluko udal aktak.
18. Ikus: Nafar Diputazioaren Aktak. 1931.ko abenduaren 24koa.
19. Ikus: Zarrakazteluko udal aktak.
20. Ikus: «Boletín del Instituto de Reforma Agraria» 15. alea.
21. Ikus;
22. Ikus: Zarrakazteluko udal aktak
23. Ibidem.
24. Ikus; Nafar Diputazioaren aktak.
25. Ikus: *Trabajadores*
26. Ibidem.
27. Ikus: Zarrakazteluko udal aktak.
28. Ikus: *Trabajadores*.
29. Altafaylla Kultur Taldea. NAVARRA 1936. DE LA ESPERANZA AL TERROR. Juan Jesús Virto eta Victor Manuel Arbeloaren aipatutako idazlana.
30. Ikus: *La Voz de Navarra*, 1933.ko ekainaren 10koa.
31. Ikus: Antonio Elorza. IDEOLOGIAS DEL NACIONALISMO VASCO. Donostia, 1978.
32. ikus: *La Voz de Navarra* 1934.ko maiatzaren 20koa
33. ikus: Ibidem.
34. Ibidem. 1934.ko ekainaren 1koa.